

1. BALOREZKO PROPOSAMENA:

ONURAK:

Alde batetik, gazteei dirua lortzea errezten die eta honekin batera etxeko edo behar dituzten aktibitateetan laguntzeko aukera ematen die jabeak edo bezeroak etxean egon ezin direnean edo beste gauza batzuetan daudenean.

BALIOAK:

Elkar-laguntza

Gure komunitatean, jendeak elkarri laguntzen dio. Nerabeek haien denbora eta gaitasunak eskaintzen dituzte besteek laguntza jaso dezaten.

Arduratasuna

Nerabeek lan txikiak edo enkarguak betetzean konfiantza eta seriotasuna erakusten dute, eta erantzukizun pertsonala garatzen dute.

Segurtasuna

Plataforma seguru bat eskaintzen da bai nerabeentzat, bai bezeroentzat: identitate-egiaztapena, iritzi-sistema eta babes-neurriak.

Ikaskuntza eta Garapena

Nerabeek esperientzia profesionalak bizitzen dituzte, lan-ohiturak eta gaitasun sozialak garatuz.